

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

12/2020 Mozioa, otsailaren 12koa, euskararen erabileraren normalizazioa babesteari buruz

Arabako Batzar Nagusiek, 2020ko otsailaren 12an egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

12/2020 Mozioa, otsailaren 12koa, euskararen erabileraren normalizazioa babesteari buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek bat egiten dute Euskadiko Toki-erakundeetan Hizkuntza Ofizialen Erabilera Instituzionala eta Administratiboa Normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren idazketa inspiratu duten printzipioekin; alegia: euskararen erabilera normalizatzearekin eta herritarren hizkuntza-eskubideak babestearekin.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatu nahi diote herritarren hizkuntza-eskubideak benetan errespetatzen direla bermatze aldera urrats sendoak ematen jarraitzeko borondatea berresteko, kontutan hartuta nola erakunde publiko eta pribatuen aurrean euskara erabili nahi duten pertsonak oraindik ere zailtasunak dituztela jakinda.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatu nahi diote euskararen erabilera arian-arian normalizatzeko behar diren neurriak hartzeko, bai zerbitzu-hizkuntza gisa herritarrekiko harremanetan, betiere herritar bakoitzaren hizkuntza-aukeraren eskubidea errespetatuz, bai erakundearen barruko lan-hizkuntza gisa; hori guztia 179/2019 Dekretuan jasotako jarraibideekin bat etorriaz.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko otsailaren 12a

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA